# TICKETBAI:
# FAKTURATZEN HASTEKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK

Oharra: Argitalpen hau informazioa emateko baino ez da, zerga betebeharrak Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 81. artikuluan ezarritakoaren arabera betetzen laguntzeko.

Nolanahi ere, fakturak egitean, TicketBAI fitxategiak sortu, sinatu eta bidaltzean eta zerga aitorpenak aurkeztean indarrean dagoen araudian xedatutakoa bete beharko da.

EDUKIEN EGUNERATZEA ESKURAGARRI DAGO GURE WEBGUNEAN

# AURKIBIDEA

**TICKETBAI JAKINARAZTEN HASIKO NAIZ**

Zer da TicketBAI? ........ 3

Nori eragiten dio TicketBAI sistemak?........ 3

Noiztik jakinarazi behar dut TicketBAI? ........ 3

Zer bidali behar dut TicketBAIra? ........ 3

Bete behar al dut TicketBAI betebeharra? ........ 4

Betebeharra betetzetik salbuetsita egon naiteke? ........ 5

Zer behar dut TicketBAI jakinarazten hasteko? ........ 6

**TICKETBAI JAKINARAZTEN HASIKO NAIZ FAKTURARABAREN BIDEZ**

Zer da FakturAraba? ........ 7

FakturAraban sartzea........ 7

Aukeratu nola sartu nahi duzun FakturAraban........ 8

Autentifikatu egin behar duzu sartzeko ........ 9

Faktura nori egiten zaion aukeratzea ........ 9

Aplikazioaren menua........ 10

Faktura berria........ 10

FAKTURA PDF FORMATUAN BISTARATZEA ........ 22

**1. ERANSKINA. INFORMAZIO BALIAGARRIA: FAKTURAK** ........ 23

Faktura erraztua, baina faktura osoa eskatzen digute (ordezko faktura)

Faktura zuzentzaileak

**2. ERANSKINA. TICKETBAI-REN BESTE TRESNA BATZUK** ........ 34

Fakturak kontsultatzea

Erroreak kontsultatzea

Datu fiskalak

**ERANSKINAK. KONTUAN HARTU BEHARREKO INFORMAZIOA** ........ 42

**ERANSKINAK. HELBIDE INTERESGARRIAK** ........ 43

# TICKETBAI JAKINARAZTEN HASIKO NAIZ

https://web.araba.eus/es/hacienda/ticketbai

## *Hasi aurretik...*

Kontsultarako erreferentzia hauek izatea gomendatzen dizugu:




## *Zer da TicketBAI?*

TicketBAI fakturatzeko betebehar formala da, eta berekin dakar:

- Fakturan jasotako informazioaren XML fitxategi bat sortu eta bidali beharra.

- Fakturan 2 elementu berri gehitzen dira: TBAI kodea eta QR kodea, bezeroei aukera ematen diena faktura Ogasunera bidali dela egiaztatzeko.

## *Nori eragiten dio TicketBAI sistemak?*

TicketBAI sistemak jarduera ekonomikoak egiten dituzten eta fakturak edo frogagiriak egin behar dituzten Arabako zerga araudiaren menpeko pertsona fisiko eta juridiko guztiei eta nortasun juridikorik gabeko erakunde guztiei eragiten die.

## *Noiztik jakinarazi behar dut TicketBAI?*

Jarduera ekonomikoa hasten denetik, 2022ko ekitalditik aurrera.

## *Zer bidali behar dut TicketBAIra?*

TicketBAI sistemak sorturiko XML fitxategia da bidali beharrekoa. Fitxategi hori faktura edo ordainagiri bat egiten den guztietan sortzen da, eta fitxategi horren datuak fakturaren oso antzekoak dira

Fitxategiaren edukia fakturaren edukiaren antzekoa da, baina ez berdina.

Oharra: Gogorarazten dizugu fakturek izan beharreko **edukia Fakturazio Betebeharren Arautegia onartzen duen 18/2013 Foru Dekretuaren** 6. eta 7. artikuluetan jasotzen dela.

Adibidez, XML fitxategiak faktura sortu deneko ordua edo jaulkitzailearen tributazio araubidearen datuak jasotzen ditu, fakturan agertzen ez direnak; fakturaren jaulkitzailearen helbidea, aldiz, ez da agertzen, eta fakturan, ordea, bai.

## *Nire jarduera ekonomikoa kontuan hartuta, bete behar al dut TicketBAI betebeharra?*

*Horren erantzuna izateko, jo ohiko galderen 2. eta 3. ataletara.*

***ORO HAR:***

Ondasun eta zerbitzu emateei aplikatzen zaie TicketBAI. Ondorio horietarako, ondasun eta zerbitzu ematetzat jotzen dira BEZa arautzen duen legerian halakotzat definitutako eragiketak.

***ZENBAIT KASU BEREZI:***

LOKALAK/HIGIEZINAK ALOKATZEA

Higiezinen errentatzaileek kasu hauetan bakarrik aplikatu behar dute TicketBAI:

- a) Pertsona juridikoak badira (sozietate anonimoak, mugatuak, kooperatibak…), **beti**.
- b) Pertsona fisikoak edo errentak eratxikitzen zaizkien erakundeak badira eta besteren konturako langile bat edo gehiago badute jarduera horretan, arduraldi esklusiboan, edota jarduera ekonomikotzat hartzen badira, adibidez, apartamentu turistikoak ustiatzea.

NORTASUN JURIDIKORIK EZ DUTEN ETA ERRENTAK ERATXIKITZEN ZAIZKIEN ERAKUNDEAK

TicketBAI nahitaezkoa izango da egoitza fiskala Araban duten, jarduera ekonomiko bat egiten duten eta errentak eratxikitzen zaizkien erakundeentzat. Betebehar hori nahitaez bete beharrekoa da, edozein delarik ere erakunde horietako kideen zerga egoitza.

VENDING-AK/IKUZTEGIAK

TicketBAI betebeharrari lotuta daude vending sektorean eta ikuztegienean jarduten duten zergapekoak, eta makinak araudira egokitu beharko dira, eta egokitu ezin direnak ordeztu egin beharko dira.

Kasu jakin batzuetan, aldi baterako salbuespena ezarri liteke, zergadunak aldez aurretik hala eskatzen badu eta justifikazioa aurkezten badu.

SALMENTA IBILTARIA

TicketBAI betebeharra jarduera ekonomiko bat egiten duten zergadun guztiei aplikatzen zaie, jarduera hori lokal batean modu iraunkorrean, establezimendurik gabe edo salmenta ibiltariaren bidez egiten den kontuan hartu gabe.

ESTABLEZIMENDU BAT ARABATIK KANPO DUEN ARABAKO ZERGAPEKOA

Arabako zergapeko baten jarduera orok dakar TicketBAI betekizunen araberako faktura egiteko betebeharra. Adibidea: Arabako zergapeko batek PFEZaren aitorpena Araban aurkezten du eta denda bat du Burgosen. Burgosko dendan TicketBAI fakturak egin beharko ditu.

ERRETIRO ADINETIK HURBIL EGOTEA

TicketBAI betebeharra betetzetik salbuetsita daude honako baldintza hauek GUZTIAK betetzen dituzten pertsona fisikoak (9/2022 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuan jasotakoak):

a) 2021eko abenduaren 31n jarduera ekonomiko bat egiten aritzea.

b) Data horretan (2021eko abenduaren 31n) 60 urte edo gehiago izatea.

c) Elkargo bateko kide izatea derrigorrezkoa duen jarduera profesional batean dihardutean pertsona fisikoen taldekoa ez izatea.

d) 2021ean ez izatea besteren konturako langilerik kontratatuta.

Baldintzaren bat betetzen ez bada, zergadunak TicketBAI betebeharra bete beharko du.

HARTZAILEAK JAULKITZEN DITU NIRE FAKTURAK

Faktura egiten duen hartzailea (bezeroa) Arabako edo Gipuzkoako araudiaren mende badago, TicketBAI betebeharra bete behar du, eta XML fitxategia Arabako Foru Ogasunera bidali.

Faktura egiten duen hartzailea (bezeroa) Bizkaiko araudiaren mende badago, Bizkaian ezartzeko egutegiaren edo borondatez hastearen mende dago.

Faktura egiten duen hartzailea (bezeroa) Estatuko edo Nafarroako araudiaren mende badago, EZ da behartuta egongo harik eta lurralde horietan TicketBAIren antzeko betebehar bat ezartzen den arte.

## ***Betebeharra betetzetik salbuetsita egon naiteke?***

Arauan aurreikusitako salbuespen kasuak ohiko galderen 3. atalean kontsultatu ditzakezu; dena dela, TicketBAI betebeharra garatzen duen arautegiari onespena ematen dion 48/2021 Foru Dekretuaren 4. artikulua ere kontsulta dezakezu.

## *Zer behar dut TicketBAI jakinaraztten hasteko? (Kontsultatu ohiko galderen 4. atala)*

***1.- Internet konexioa***

***2.- Fakturak jaulkitzeko gailua (ordenagailua, ST, balantza, datafonoa...)***

***3.- Ziurtagiri digitala***, fitxategia digitalki sinatuta behar baita. Ziurtagiri digitalak TicketBAI betebeharra betetzeko erabilitako software edo aplikazioaren araberakoak izango dira.

Ziurtagiri digital baliodunak dira hauek: NAN elektronikoa, BakQ, IZENPEren ziurtagiriak, FNMT...

***4.-*** Ondasun eta zerbitzu emateak dokumentatzen dituzten fitxategien osotasuna, kontserbazioa, trazabilitatea, bortxaezintasuna eta bidalketa bermatzen duen ***sistema informatikoa***:

- Software zerrendan erregistratutako SOFTWARE BERME-EMAILEA
- FakturAraba

# FAKTURARABAREN BIDEZ TICKETBAI JAKINARAZTEN HASIKO NAIZ

## *ALDEZ AURREKO INFORMAZIOA*

### *Zer da FakturAraba?*

**FakturAraba web aplikazio bat da, Arabako Foru Aldundiak eskaintzen duena TicketBAI sistemaren baldintzak betetzen dituzten fakturak jaulki ahal izateko.**

Aplikazioan sartzeko, identifikazio elektronikorako bitarteko bat izan behar duzu (BakQ edo ziurtagiri elektronikoa), eta egindako faktura bakoitzak bidaltzen den fitxategia elektronikoki sinatzea behar du.

BEZaren araubide berezian egindako eragiketetarako ezin izango da FakturAraba erabili: 06 – BEZaren erakunde taldeen araubide berezia (maila aurreratua)

## *HAS GAITEZEN...*

### *FakturAraban sartzea*

Gure web orriaren bidez: https://web.araba.eus/eu/ogasuna/ticketbai

Hemendik sar daiteke:



Edo hemendik:




## *Aukeratu nola sartu nahi duzun FakturAraban*



# *Autentifikatu egin behar duzu sartzeko*




Aukera bakoitza autentifikazio metodo bati dagokio.

• BAKQ: NANaren eta pasahitzaren bidez identifikatzeko metodoa.

• Ziurtagiri digitalak: Metodo hau erabiltzeko, ziurtagiri elektroniko bat eduki behar da; esaterako:

-IZENPE: Bak, BakQ, pertsona fisikoaren edo erakundearen ordezkariaren ziurtagiria.

-NANe–NAN elektronikoa

-ACA

-Camerfirma

-ANCERT

-FNMT

# *Faktura nori egiten zaion aukeratzea*



## *Aplikazioaren menua*




## *Faktura berria*

OHARRA: Behin faktura bidalita, faktura horren kopia egin daiteke bezero/hartzaile berarentzat, fakturen ataletik → Hautatu faktura kopiatzeko aukera.



# Faktura mota






# Jaulkitzailea




Atal honetan, fakturaren jaulkitzailearen izen-abizenak edo sozietatearen izena bistaratzen dira.

Datu horiek aplikazioan sartu den pertsonaren eta "Jaulkitzailearen datuak" atala beteta egotearen edo ez egotearen araberakoak dira. "Jaulkitzailearen datuak" atala beteta ez badago, jaulkitzailearen helbidea eta posta kodea idatzi behar dira gutxienez, eskatzen denaren arabera. Beteta badago, atal honetan, jaulkitzailearen helbidearen datuak alda daitezke, eta aldaketa horiek uneko fakturari bakarrik eragingo diote.

Faktura sortzen ari den jaulkitzailearen IFZren informazioa eta izen-abizenak edo sozietatearen izena automatikoki kargatzen dira, eta ezin dira aldatu. Alabaina, helbidearen, posta kodearen, udalerriaren eta probintziaren informazioa alda daiteke, eta uneko fakturan baino ez du eraginik izango.

Kontsumo estatuko IFZ. Beste IFZ bat sar daiteke, eta fakturaren PDFan soilik bistaratuko da. Horretarako, "Kontsumo estatuko IFZ" aukera markatu behar da. Fakturaren PDFan bakarrik agertuko den atzerriko helbide baten berri eman daiteke.

# Bezeroa




Atal honetan fakturaren bezeroari buruzko datuak bete behar dira. Horretarako, menu zabalgarrian fakturaren bezeroa aukeratzen da, bezeroen kudeaketan alta eman zaienen artean, edo alta eman dakioke "Bezero berria" botoiaren bidez.

# Fakturaren goiburua






# Fakturaren datuak



Eragiketaren deskribapena *

☐ 679/2016 Araubidearen 9. artikuluak babestutako informazioa

Fakturatzen den eragiketaren deskribapen orokorra adierazi behar da.

Deskribapenak Bereziki babestutako datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari buruzko 679/2016 Erregelamenduaren 9. artikuluak babestutako informazioari eragiten dion kasuetan BAINO EZ DA KLIKATU BEHAR.

**Bereziki babestutako datuak dira pertsona fisiko baten etnia edo arraza jatorria, iritzi politikoak, sinesmen erlijioso edo filosofikoak edo sindikatu afiliazioa, datu genetikoak, pertsona fisiko bat modu unibokoan identifikatzea ahalbidetzen duten datu biometrikoak, osasunari buruzko datuak edo pertsona fisiko baten bizitza sexualari edo sexu orientazioari buruzko datuak jakinarazten dituztenak.**

Lauki hau aktibatzen bada, deskribapena sortutako fakturan bistaratuko da, baina ez da AFAra bidaliko.

Eragiketaren data

BEZaren araubidearen gakoa *
01 - Araubide orokorreko eragiketa eta hurrengo balioetan jaso gabe dagoen beste edozein kasu

Fakturatzen diren eragiketak egin diren eguna fakturaren jaulkitze dataren berdina ez bada soilik bete behar da eremu hau.

Eremu honetan, fakturatzen diren eragiketei aplikatutako BEZaren araubidearen gakoa agertzen da.

Hasiera batean, "01-Araubide orokorreko eragiketa" gakoa egongo da aukeratuta, gako hori aplikatzen baitzaie zergadun eta eragiketa gehienei.

Hala ere, egoera jakinetan, beste gako bat aukera daiteke, kasu kasuan dagokiona. Gako hori TicketBAI fitxategietarako baino ez da behar, eta EZ da pdf formatuko fakturan agertuko. (Dokumentu honen azken eranskinean kontsulta dezakezu gakoen zerrenda).

**Xehetasun lerroak**

Deskribapena *

☐ 679/2016 Araubidearen 9. artikuluak babestutako informazioa

Fakturatutako kontzeptuaren deskribapena

Aukera hau aktibatuz gero, adierazten da deskribapen hau 697/2016 Erregelamenduaren 9. artikuluak babestutako informazioa dela (697/2016 Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituena).

**Bereziki babestutako datuak dira pertsona fisiko baten etnia edo arraza jatorria, iritzi politikoak, sinesmen erlijioso edo filosofikoak edo sindikatu afiliazioa, datu genetikoak, pertsona fisiko bat modu unibokoan identifikatzea ahalbidetzen duten datu biometrikoak, osasunari buruzko datuak edo pertsona fisiko baten bizitza sexualari edo sexu orientazioari buruzko datuak jakinarazten dituztenak.**




Ondasunak edo zerbitzuak emateko eragiketak, BEZari dagokionez, honelakoak izan daitezke:

- Zergapekoa eta salbuetsi gabea, subjektu pasiboaren alderantzizkatzerik gabe
- Zergapekoa eta salbuetsi gabea, subjektu pasiboaren alderantzizkatzearekin
- Zergapekoa eta salbuetsia
- Ez-zergapekoa




## <u>Zergapekoa eta salbuetsi gabea, subjektu pasiboaren alderantzizkatzerik gabe</u>




Hasiera batean aukera hau egongo da markatuta. BEZari atxikita eta zerga ordaintzetik salbuetsita ez dauden eragiketei dagokie.

• **Zerga tasa** (nahitaezkoa): Xehetasun lerroaren zerga tasa menu zabalgarriko aukeren artean hautatu behar da.

• **Baliokidetasun errekarguaren tasa:** Xehetasun lerroaren baliokidetasun errekarguaren tasa menu zabalgarriko aukeren artean hautatu behar da. Aplikatu beharreko ehunekoa hautatutako zerga tasaren arabera bakarrik hauta daiteke. Eragiketaren bezeroak araubide horretan dagoela adierazten duenean bete behar da. EZ da bete behar ez azken kontsumitzaileetan, ez enpresetan

• **Zenbatekoa guztira:** Automatikoki kalkulatzen du aplikazioak (zerga oinarria + zergaren kuota + baliokidetasun errekarguaren kuota). Ezin da editatu.

• **Baliokidetasun errekarguko edo araubide erraztuko eragiketa:** 51. eta 52. gakoetan (**baliokidetasun errekargua edo araubide erraztua**) soilik bistaratzen den check bat da. Bistaratuz gero, markatuta egongo da. Gutxienez xehetasun lerro batek markatuta izan behar du, baldin eta saltzailea baliokidetasun errekarguan edo araubide erraztuan badago eta jarduera bat badu araubide orokorrari atxikita.



## Zergapekoa eta salbuetsi gabea, subjektu pasiboaren alderantzizkatzearekin




Aukera hau BEZari atxikita dauden baina subjektu pasiboaren alderantzizkatzea duten eragiketei dagokie; hau da, fakturaren jaulkitzaileak ez du zerga jasanarazi behar; izan ere, zergaren subjektu pasiboa da eragiketaren hartzailea (adibidez, ondasun higiezin baten entrega salbuetsian subjektu pasiboak salbuespenari uko egiten badio).

Honako eremu hau automatikoki kalkulatzen du aplikazioak:

- **Zerga oinarria:** Zerga oinarria automatikoki kalkulatzen du aplikazioak ((kopurua * zenbatekoa) – deskontua). Ezin da editatu.

## Zergapekoa eta salbuetsia




BEZari atxikita eta zerga ordaintzetik salbuetsita dauden eragiketei dagokie. Hauek izan daitezke salbuespenak:

- BEZaren Foru Arauaren 20. artikuluak aipatzen dituen barne eragiketetako bat (adibidez, mediku zerbitzuak, irakaskuntza zerbitzuak, eraikinen bigarren emateak eta ondorengoak, etab.).
- nazioarteko eragiketa salbuetsi bat (adibidez, BEZaren Foru Arauaren 21. artikuluko salbuetsitako esportazioak edo BEZaren Foru Arauaren 25. artikuluko Europar Batasunaren barruko emateak).

Honako eremu hauek bete behar dira:

• **Salbuespenaren arrazoia** (nahitaezkoa): Hainbat aukera dituen eremu zabalgarria da.

| **Salbuetsita egotearen arrazoi posibleak** |
|---|
| BEZaren Foru Arauaren 20. artikuluak salbuetsia: salbuetsitako barne eragiketak. |
| BEZaren Foru Arauaren 21. artikuluak salbuetsia: salbuetsitako ondasunen esportazioak. |
| BEZaren Foru Arauaren 22. artikuluak salbuetsia: salbuetsitako esportazioei berdinesten zaizkien eragiketak. |
| BEZaren Foru Arauaren 23. eta 24. artikuluek salbuetsia: zona franko, gordailu franko eta aduana araubideengatik salbuetsitako eragiketak. |

| |
|---|
| BEZaren Foru Arauaren 25. artikuluak salbuetsia: Europar Batasunaren barruko ondasun emateengatik salbuetsitako eragiketak. Bezeroa beste estatu bateko IFZ/BEZarekin identifikatuta egon behar da. |
| Beste arrazoi bat dela eta salbuetsia. |

• **Zerga oinarri salbuetsia:** Automatikoki kalkulatzen du aplikazioak ((kopurua * zenbatekoa) – deskontua). Ezin da editatu.

**<u>Ez-zergapekoa</u>**




Aukera hau BEZari atxikita ez dauden eragiketei dagokie.

Honako eremu hauek bete behar dira:

• **Arrazoia** (nahitaezkoa): Ez-zergapekoa izatearen kausa BEZaren Foru Arauaren 7. artikulua edo beste arrazoi bat den aukeratu behar da.

| **Zergapean ez egotearen arrazoi posibleak** |
|---|
| BEZaren Foru Arauaren 7. artikuluak salbuetsia. Ez-zergapekoa izateko beste arrazoi batzuk. |
| Ez-zergapekoa, hirugarrenen kontura egindako ordainketak edo salmentak. |
| Ez-zergapekoa, lokalizazio arauengatik. |
| Ez-zergapekoa ZALen, lokalizazio arauak direla eta, baina atzerriko zerga edo IPS/IGIC eragiten du. |

• **Zenbatekoa:** Automatikoki kalkulatzen du aplikazioak ((kopurua * zenbatekoa) – deskontua). Ezin da editatu.

***<u>Oharra:</u>*** *<u>Ez-zergapekoa izatearen arrazoiaren (IE) eremu horiek guztiak ez dira TicketBAIra bidaltzen, baina sortutako fakturaren PDFan bistaratzen dira.</u>*

*<u>Informazio horrekin eragiketen xehetasun lerroak bete behar dira.</u>*

**<u>Lerro bati dagozkion datuak bete ondoren, ezinbestekoa da GEHITU botoia sakatzea, eta, honela, honako hauek egin daitezke:</u>**

- Lerro berri bat gehitu (1.000 xehetasun lerro arte onartzen dira).

- Hurrengo eremura pasatu (lerro bakarra badu).







**OHARRA:** Fakturan xehetasun lerroa sartzeko, *Gehitu* botoiaren gainean sakatu behar duzu. Botoia sakatu ezean, xehetasun lerroa EZ zaio fakturari gehituko.

Daturen bat okerra bada, eremuan bertan adieraziko da. Aldiz, eremuak behar bezala bete badira, erregistroa taula bati gehituko zaio.




## Oina



Aukera honen bidez faktura aurrebistaratzen da une horretan dagoen moduan. Zirriborro formatuan ikusten da (zirriborroa dela adierazten duen ur marka izango du). Zirriborro hori PDF formatuan deskargatu edo inprimatu daiteke. Zirriborroa denez, EZ du izango ez QR koderik, ez TicketBAI identifikatzailerik, ez faktura zenbakirik, ez eta jaulkitze datarik ere.

**Botoi honen bidez, aplikazioak fakturaren zirriborroa gordetzen du, gehitu den informazioarekin.**

**"Fakturak kontsultatzea" atalean sortutako zirriborroak kontsulta daitezke; horretarako, "Zirriborroa" aukera hautatu behar da.**




**Elektronikoki sinatzeko eta faktura bidaltzeko prozesua hasten du.**

**1) Sartutako datuak zuzenak direla baliozkotzen da. Errorerik egonez gero, errore mezu bat agertuko da eta gorriz nabarmenduko dira erroreak.**

**2) Inprimakiko informazio guztia zuzena bada, fakturaren aurrebista erakusten da pdf formatuan, bai eta sinatuko den fitxategiaren edukia ere (XML).**

**3) "Sinatu beharreko fitxategiaren edukia" etiketan TicketBAIko XML fitxategia dago, sinatu eta AFAra bidaltzen dena. Fitxategia bistaratzeko, izenburuaren gainean sakatu behar da.**

**Fakturaren pdf dokumentua ere bistaratzen da, zirriborro markarekin.**

**4) Bi botoi agertzen dira:**

**• Utzi: Errorerik badago, botoi hori sakatuta PDFaren aurrebista ixten da, eta berriro bistaratzen da sortzen ari den fakturaren xehetasuna, antzemandako errorea zuzendu ahal izateko.**

**• Sinatu: TicketBAI fitxategia elektronikoki sinatzen da, eta faktura sortzen da PDF formatuan, QR kodearekin eta TicketBAI identifikatzailearekin, inprimatu ahal izateko edo posta elektronikoz bidali ahal izateko, jaulkitzailearen datuen eremuan posta elektronikoa adierazi bada.**

**5) Behar bezala egiten bada eta fitxategiak baldintza guztiak betetzen baditu, mezu hau agertuko da: *"Faktura ongi bidali da".***

# *FAKTURA PDF FORMATUAN BISTARATZEA*



LOGO

FAKTURA/FACTURA

| | |
|---|---|
| Zenbakia/Número | 5 |
| Emate data/Fecha expedición | 26/07/2021 |
| Eragiketa data/Fecha Operación | |
| Mota/Tipo | Sinplifikatua/Simplificada |

DATOS DE LA FACTURA

EMISOR

JAULKITZAILEA/EMISOR(A)

11111111H - TICKETBAI UNO, CIUDADANO

Jose Miguel de Barandiarán 16 Bajo

01009 Vitoria (Alava)

CLIENTE

BEZEROA/CLIENTE

00000011B - Castillejo Benate, Samuel

Calle Madagascar 99

32015 Alicante

Eragiketaren deskribapena / Descripción operación

Factura de compra de tejados

DESCRIPCIÓN DE LA FACTURA

LÍNEAS DE DETALLE

| Deskribapena Detalle | Kopurua Cantidad | Prezioa Precio € | Dtua Dto € | Oinarria Base € | BEZ% %IVA | B.E. % % RE | Guztira Total € |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Detalle 1 | 345,00 | 45,0000 | | 15.525,00 | 10 | 1,40 | 17.294,85 |
| detalle2 | 345,00 | 45,0000 | | 15.525,00 | 21 | | 18.785,25 |

RESUMEN

| Oinarra / Base € | BEZ / IVA | | Errekargua / Recargo | | Guztira / Total € |
|---|---|---|---|---|---|
| 15.525,00 | 10 | 1.552,50 | 1,40 | 217,35 | 17.294,85 |
| 15.525,00 | 21 | 3.260,25 | 0,00 | 0,00 | 18.785,25 |

TBAI-11111111H-260721-BqCdIKMmlGrQE-057

IDENTIFICATIVO TICKETBAI

CÓDIGO QR

| | |
|---|---|
| Zerga-oinarria / Base imponible | 31.050,00 € |
| Errekargu kuota / Cuota recargo | 217,35 € |
| Zenbateko atxikipena / Cuota IVA | 4.812,75 € |
| Zerbatekoa guztira / Importe total | 36.080,10 € |

TOTALES FACTURA

Realizar el pago en el número de cuenta ES00 0000 0000 0000 0000 0000.
Indicar en el concepto el número de factura

PIE - OBSERVACIONES

# 1. ERANSKINA.

# INFORMAZIO ERABILGARRIA: FAKTURAK

## *FAKTURA BAT EGIN ONDOREN GERTA DAITEZKEEN EGOERAK:*

| | |
|---|---|
| Ordezko faktura: Hasieran faktura erraztua baina faktura osoa eskatzen dute. | Faktura erraztua ordezteko jaulkitako faktura |
| Akatsa antzeman da fakturan | Faktura zuzentzailea |
| Ez dago eragiketarik | Faktura baliogabetzea eragiketa egon ez delako. (DGT V0611 / 11-3-2011) |

- ***FAKTURA ERRAZTUA DA, BAINA FAKTURA OSOA ESKATZEN DIGUTE (ORDEZKO FAKTURA)***

**FAKTURA ERRAZTUA da, baina FAKTURA OSOA eskatzen digute (ez da zuzentzailea)**

Faktura erraztua daukagu eginda.

TicketBAI araba álava

FAKTURA/FACTURA

| | |
|---|---|
| Saila/Serie | DFA_2025S |
| Faktura zenbakia/Número de Factura | 7 |
| Jaulkitze data/Fecha expedición | 14/08/2025 |
| Eragiketaren data/Fecha Operación | |
| Mota/Tipo | Erraztua/Simplificada |

JAULKITZAILEA/EMISOR(A)

99999972C - FICTICIO ACTIVO, NUEVOCIUD

214521545454

01007 VITORIA-GASTEIZ (ÁLAVA)

Eragiketaren deskribapena / Descripción operación

Ostalaritza zerbitzua

| Deskribapena Detalle | Kopurua Cantidad | Prezioa Precio € | Dtua Dto € | Oinarria Base € | %BEZ / IVA | B.E. % | Guztira Total € |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Eguneko menua | 2 | 30 | | 60,00 | 10 | | 66,00 |

| Oinarra / Base € | BEZa eta beste zerga batzuk / IVA y otros impuestos | | Baliokidetasun errekargua / Recargo de equivalencia | | Guztira / Total € |
|---|---|---|---|---|---|
| 60,00 | 10 | 6,00 | 0,00 | 0,00 | 66,00 |

TBAI-99999972C-140825-FjjGgQ4jZ1wdh-033

PRUEBA

| | |
|---|---|
| Zerga-oinarria/Base imponible | 60,00 € |
| BEZaren kuota/Cuota IVA | 6,00 € |
| **Zenbatekoa, guztira/Importe total** | **66,00 €** |

1. urratsa: faktura erraztua ordezteko faktura osoa jaulki (EZ da zuzentzailea).

FakturAraban faktura OSOA egin behar dugu eta bezeroa identifikatu.

**Fakturaren goiburua**

Jaulkitze data | Saila: DFA_2025 | + Sail berria

Faktura zenbakia | ☑ Faktura erraztua ordezteko jaulkitako faktura

**Faktura zuzenduak edo ordezkatuak**

Fakturaren saila | Faktura zenbakia * | Jaulkitze data * | + GEHITU

***<u>Faktura erraztu guztiak adierazi behar dira (gehienez 100 faktura). Bat gehitzen den bakoitzean, klik egin behar da GEHITU botoian.</u>***

2. urratsa: faktura osoaren xehetasun lerroetan faktura erraztu bakoitzeko lerro guztiak sartu behar dira. Adibidean, lerro bat eta faktura bat baino ez dago. Horiz, ordezkatzen ari den faktura adierazten da.

TicketBAI araba álava

## FAKTURA/FACTURA

| | |
|---|---|
| Saila/Serie | DFA_2025 |
| Faktura zenbakia/Número de Factura | 33 |
| Jaulkitze data/Fecha expedición | 14/08/2025 |
| Eragiketaren data/Fecha Operación | |
| Mota/Tipo | Osoa/Completa |

| JAULKITZAILEA/EMISOR(A) | BEZEROA/CLIENTE |
|---|---|
| 99999972C - FICTICIO ACTIVO, NUEVOCIUD | 44444444A - A LOPZ, gfgf |
| 214521545454 | Avenida del mar |
| 01007 VITORIA-GASTEIZ (ÁLAVA) | 01001 |

**Ordezko faktura/Factura de canje**

DFA_2025S 7

Eragiketaren deskribapena / Descripción operación

Ostalaritza zerbitzua

| Deskribapena Detalle | Kopurua Cantidad | Prezioa Precio € | Dtua Dto € | Oinarria Base € | %BEZ / IVA | B.E. % | Guztira Total € |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| Eguneko menua | 2 | 30 | | 60,00 | 10 | | 66,00 |

| Oinarra / Base € | BEZa eta beste zerga batzuk / IVA y otros impuestos | | Baliokidetasun errekargua / Recargo de equivalencia | | Guztira / Total € |
|---|---|---|---|---|---|
| 60,00 | 10 | 6,00 | 0,00 | 0,00 | 66,00 |

TBAI-99999972C-140825-jligEomKbpODq-123

| | |
|---|---|
| Zerga-oinarria/Base imponible | 60,00 € |
| BEZaren kuota/Cuota IVA | 6,00 € |
| **Zenbatekoa, guztira/Importe total** | **66,00 €** |

DE PRUEBA

- ***FAKTURA ZUZENTZAILEAK***

Faktura zuzendu egiten da akatsak baditu: prezioan deskontua egin ez bada, BEZaren tasa okerra bada, bezeroaren NANa okerra bada... Alegia, akatsek **FAKTURAREN DATUei** eragiten badiete eta baita itzultzeen eta *rappel*en kasuan ere.

Beste kontu bat da akatsek fitxategiari eragiten diotenean, fakturan agertzen ez diren datuak baitira.
Hauek dira TBAIn markatu beharreko kodeak:

| Balioak | Deskribapena |
|---|---|
| R1 | Faktura zuzentzailea: Zuzenbidean oinarritutako akatsa eta BEZaren Legearen 80. artikuluaren lehen, bigarren eta seigarren puntuetako arrazoiak. |
| R2 | Faktura zuzentzailea: BEZaren Legearen 80.Hiru artikulua.. |
| R3 | Faktura zuzentzailea: BEZaren Legearen 80.Lau artikulua. |
| R4 | Faktura zuzentzailea: gainerakoak |
| R5 | Faktura erraztua zuzentzeko faktura |

**Zuzenketei buruzko oharrak:**

**R1 gakoa:**80 Bat, Bi eta Sei artikuluak. Zuzenbidean oinarritutako akatsak: oker betetzea zerga tasa, bilgarri edo salgaien itzultzea, edo *rappel*ak, aplikatu beharreko karga tasa gaizki adieraztea, zergapean ez egotearekin lotutakoak...

**R2 gakoa:** Bezeroa hartzekodunen konkurtsoan sartu bada, BEZari buruzko Foru Dekretuaren 80. artikuluan ezarritako epeak eta betekizunak betez.

**R3 gakoa:** Eragiketa guztiz edo partzialki kobraezina bada, BEZari buruzko Foru Dekretuaren 80. artikuluan ezarritako epeak eta betekizunak betez.

**R4 gakoa:** Beste aldaketa batzuk: gaizki kalkulatutako atxikipenak, deskribapen akatsak, moneta aldaketengatiko (dibisak) akatsak...

**R5 gakoa:** Faktura erraztu baten faktura zuzentzailea**.**

Fakturak zuzentzeko hainbat modu daude. Ohiko galderen 11. atala irakurtzea gomendatzen dugu.

**Zuzendu beharreko jatorrizko faktura: ZO = 1.000 € eta kuota = 210 €**

Prezioan okertu naiz. **Faktura zuzena ZO = 800 € eta kuota = 168 € izango litzateke**.

Faktura osoa bada, faktura zuzentzailearen saila ez da jatorrizkoaren sail bera izango.

| **Ordezkatze bidez (1. aukera)** | **Ordezkatze bidez (2. aukera)** | **Aldeengatik** |
|---|---|---|
| **Faktura zuzentzailea egiten da:**<br><br>ZO = 800 € eta kuota = 168 €<br><br>ZO zuzendua = 1.000 € eta kuota zuzendua = 210 € | **2 faktura jaulkitzen dira:**<br>- Zenbateko negatiboak dituen faktura:<br>• ZO: -1000 €<br>• Kuota: -210 €<br>- Faktura zuzentzailea:<br>• ZO: 800 €<br>• Kuota: 168 € | **Faktura zuzentzailea:**<br>• ZO: -200 €<br><br>• Kuota: -42 € |
| **Faktura zuzentzailea erregistratzea (zuzentzaileek aparteko saila):**<br>- Faktura mota: R1, R2, R3, R4 edo R5<br>- Zuzentzaile mota: S<br>- Zuzenketaren zenbatekoa:<br>- Oinarri zuzendua: 1.000 €<br>- Kuota zuzendua: 210 €<br><br>- Zenbatekoa guztira:<br>Baliozko azken zenbatekoa: **968 €**<br>- Fakturaren banakapena:<br>- Zerga oinarria: **800 €**<br><br>- Kuota jasanarazia: **168 €** | **Zenbateko negatiboak dituen faktura erregistratzea (ez da faktura zuzentzailea):**<br>- Fakturaren banakapena (zuzentzen den zenbatekoa):<br>- Zerga oinarria: -1.000 €<br>- Kuota jasanarazia: -210 €<br><br>**Faktura zuzentzailea erregistratzea (zuzentzaileek aparteko saila):**<br>- Faktura mota: R1, R2, R3, R4 edo R5<br>- Zuzentzaile mota: S<br>- Zuzenketaren zenbatekoa:<br>- Oinarri zuzendua: 0 €<br>- Kuota zuzendua: 0 €<br><br>- Zenbatekoa guztira:<br>Baliozko azken zenbatekoa: **968 €**<br>- Fakturaren banakapena:<br>Zerga oinarria: **800 €**<br>Kuota jasanarazia: **168 €** | **Faktura zuzentzailea erregistratzea (zuzentzaileek aparteko saila):**<br>- Faktura mota: R1, R2, R3, R4 edo R5<br>- Zuzentzaile mota: I<br><br>- Zenbatekoa guztira:<br>Zuzenketaren guztizko zenbatekoa: **-242 €.**<br><br>- Fakturaren banakapena:<br>Zerga oinarria: **-200 €**<br><br>Kuota jasanarazia: **-42** € |

***Oharra: Zergadunaren erantzukizuna da jaulkitako fakturetan jasanarazitako kuota guztiak behar bezala aitortzea, ezetsi den XML fitxategiak zuzendu beharreko erroreak izan arren.***

# ORDEZKAPEN BIDEZKO ZUZENKETA URRATS BAKARREAN

Hasierako faktura: DFA_2025/35. Datu okerrak ditu: akatsa prezioan.

## FAKTURA/FACTURA

| | |
|---|---|
| Saila/Serie | DFA_2025 |
| Faktura zenbakia/Número de Factura | 35 |
| Jaulkitze data/Fecha expedición | 18/08/2025 |
| Eragiketaren data/Fecha Operación | |
| Mota/Tipo | Osoa/Completa |

| JAULKITZAILEA/EMISOR(A) | BEZEROA/CLIENTE |
|---|---|
